Berriale

Miguel Altuna LHIlko aldizkaria

2022 martxoa-ekaina

1. KUXKUXEROAK



Joxu Arana Oregi.
Miguel Altuna LHIIko Zuzendaria.



Urrategi Alzibar Bastarrika.
Miguel Altunako irakasle eta lankidea.



Ibai Larrea.
Miguel Altunako ikaslea eta korrikalaria.

Joxu Arana Oregi

Miguel Altuna Lanbide Heziketako Zuzendaria



Zer moduz joan da 2021-22 kurtsoa?

Zorionez COVID19ak behartutako egoera berezi eta tristea alde batera utzi ahal izan dugu. Nahiz eta birusa oraindik ere kalteak sortzen dabilen, aurreko 2 urtetan hartu beharreko neurri gehienak albo batera utzi ditugu, betirako izango dela espero.

Kurtso hontan, Fabrikazio adimenduna espezializazioa eta Zuzendaritzari Laguntza goi mailako zikloko 2. kurtsoa martxan jarri ditugu eta oso balorazio positiboa izan du denon partetik, aipatzekoa da ikasleek adierazitako balorazio altua.

Lehenengo mailako ikasleen Lan Prestakuntzak martxan jartzea ere oso erronka potentea izan da eta lan bikaina egin ondoren goi mailako lehen kurtsoko ikasle guztiak betetzea lortu dugu, hasieran jarri genuen helburua lortuz.

Azkenik, ezin ditugu ahaztu erretiroa hartu duten Bego Barrena, Martin Arana eta Urrategi Alzibar lankideak, urte mordoxka bat gurean lan egin eta gero ondo merezitako erretiroa hartu dute.

Zein erronka ditugu aurretik?

Irailetik aurrera, Adimen Artifiziala eta Big Data espezializazio kurtsoa jarriko dugu martxan. Mugarri garrantzitsua izango da, informatika arloan sartuko baigara kurtso honekin. Eraldaketa digitala lantzen ere aurrera jarraituko dugu eta azken urteetan egindako lana ikusteko moduan egongo garela uste dugu.

Aldaketa fisikoei dagokionez, tailerreko gunean espazio berriak sortzeko lanekin hasiko gara eta espazio digital berriak ere sortuko ditugu.

Proiektuei buruz berriz, hamaika proiektu izango ditugu esku artean, 5 Tknikakin, 5 MEyFPkin, 4 europearrak eta beste hainbat enpresekin elkarlanean.

Urrategi Alzibar Bastarrika

Miguel Altunako irakaslea eta lankidea

Zer eman dizu Miguel Altunak urte hauetan?.

23 urterekin 1985ean iritsi nintzen Bergarara, oposaketak gainditu, eta nire lehen ikastetxea CENTRO DE FORMACION PROFESIONAL izan zen, inoiz ibili gabea nintzen irakaskuntzan, eta betidanik, gustokoa iruditzen zitzaidan lanbidea aukeratu nuen. 37 urte izan dira, baina ez zaizkit batere luzeak egin. Ikastetxe honek ikusi nau 23 urteetatik gaur 60 urterarte, pentsa ezazue zenbat bizipen,

ezagutu nau gaztetxo,
ezagutu nau haurdun,
ezagutu nau ama,
ikusi nau alai,
ikusi nau triste,
ikusi nau haserre,
ikusi nau negarrez
....eta gaur ikusten nau agur esaten.



Egia esan ofizioak uste dut mantendu nauela ...zoriontsu,
ofizioak mantendu nau pozik,
ofizioak mantendu nau eguneratuta,
ofizioak mantendu nau bixi bixi,
ofizioagatik pertsona asko eta asko ezagutu ditut, irakasle, ikasle, lankide.
Ofizioak mantendu nau erne,
formazioa jasotzeko aukerak eman dizkit, beti gauza berriak ikasteko gogoz, eta iluzioz.
Ofizioa afizioa bihurtu dut.
Hauxe dena eman dit Miguel Altunak.

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

Urrategi Alzibar Bastarrika

Miguel Altunako irakaslea eta lankidea



Eta zuk zer eman diozu Miguel Altunari?
Dena baita ere.
Etxean beti esan didate erein egin behar dela jasotzea nahi ezkero, eta nik erein egin dut eta benetan asko eta asko jaso dudala. Eman dizkiot munduko ordu guztiak, dedikazio osoa, inoiz ez zait inporta izan orduak eta orduak pasatzea lanean, dedikatzea, beti ilusio handiz eta gustoz egin dudalako. Beraz eman diot edo eskaini diot, lana, dedikazioa, ilusioa, inplikazioa.
Guzti honetan ez ditut ahaztu behar ikasleak, zenbat eta zenbat ikasle ikusi ditut MIguel Altunatik pasatzen, gaur egun askok eta askok guraso direnak eta ez direnak ere, eta ikustean elkar saludatzen gara, eta hori ere inportantea da, beraien bizitzako parte bat izan naizela pentsatzeaz pozten nau, irakaskuntzan ez dira bakarrik ezaguerak transmititzen, baita ere jarrerak sentimenduak, pertsona onak, langileak, izatea eta bizitzan lekua bilatzea eta zoriontsuak izatea, bakoitzak bere erara, baina zoriontsu.

Urte hauetan atzera buelta egin ahal izango bazenu, zerbait egingo al zenuke beste era batera?
Ba ez, arro sentitzen naiz egin dudanaz, lankide onak izan ditut nire inguruan, aholkuak eman dizkidatenak, lagundu didatenak, eta profesional arloan ezik lagun ditudanak, zer gehiago eskatu daiteke?
Nik askotan ikasleei esan diedan moduan, opa dizuet ni bezain zoriontsu izatea zuen lanbidetan, eta poztuko nintzateke zuek ere inoizko denboran topatuko bazenukete beteko zaituzten lana eta ni bezain zoriontsu lanera joango bazinakete.

Zer egingo duzu aurrerantzean, eguneko orduak betetzeko?
Oraindik ez naiz planteatu ere egin, baina irakurtzea gustoko dut, mendian ibiltzea ere, lagunekin ere, eta lasai lasai eguna botatzea ondo egongo da. Ohera sartu, eta bihar zer emango dudan, zein ariketa jarriko dudan, azterketak, notak jarri eta preokupazio guzti horiek burutik kentzea asko izango da.
Jubilatutako guztiak esaten dute ez dutela ezertarako denborarik, ia hori erantzuten dudan nik ere.

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

Ibai Larrea

Miguel Altunako ikaslea eta korrikalaria



*** Nundik datorkizu atletismorako zaletasuna?**
Txikiak ginenean gurasoak ikusten genituen korrika egiten eta lagunekin karrerak egiten genituen herrian zehar.
Baserrian ere anaien artean karrerak egiten genituen.

*** Noiz hasi zinen?**
10 urte nituela hasi nintzen zumarragako atletismo taldean. Lehen krosak eta pistako lasterketak egiten nituen, baina duela 4 urte mendiko lasterketak egiten hasi nintzen eta harrezkero kros denboraldia amaitutakoan mendiko lasterketak egiten ditut.

*** Ikasketa eta entrenamenduak bateragarriak izan dira? Nola bateratu dituzu?**
Bai, bateragarriak dira. Ordu eta erdi inguruko entrenamenduak egiten ditudanez, ikastetxetik itzuli ostean nahikoa asti izaten dut.

*** Zeintzuk izan dira zure lorpenak?**
Lorpen garrantzitsuenak:
-Gipuzkoako txapeldun absolutua krosean.
-Mendi lasterketetako Euskadiko txapeldun 23 urtez azpikoetan.
-Mendi lasterketetako Espainako azpitxapeldun 20 urtez azpikoetan.
-Mendi lasterketetako Espainako hirugarren 23 urtez azpikoetan.

*** Etorkizunera begira, lanarekin bateragarriak izango dira zure entrenamenduak?**
Bai, ondo antolatuz gero denerako astia dago.

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

2. Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Kroaziako Osijek eskualdeko irakaslego eta garapen agentziko arduradunak gurean

Visita del profesorado y personal de la Agencia de desarrollo de Osijek-Croacia



Lanbide Heziketaren teknifikazioari eta berrikuntza aplikatuari loturiko bisita Hezkuntza Ministeriotik

Tecnificación e innovación aplicada de la FP. Visita del Ministerio de Educación



Irati Goikoetxea idazlearekin solasaldia izan genuen

Charla con la escritora Irati Goikoetxea



Debagoieneko ikastetxeetako orientatzaileekin bilera

Reunión con el personal orientador de los centros educativos del Alto Deba



Zibersegurtasunerako kontzientziazio saioak BCSCren eskutik

Sesiones de concienciación para la ciberseguridad de la mano de BCSC



Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko hitzaldia La Tercera Pata Elkartearen eskutik

Charla sobre la Economía Social y Solidaria a cargo de la Asociación La Tercera Pata



Alex Castell eta Jon Ceciaga SpainSkills 2022ko 4.0 Industria alorrean lehiatzen

Alex Castell y Jon Ceciaga compitiendo en Industria 4.0 de las SpainSkills 2022



Lanbide Heziketa DUALari buruzko erreportai berezia RTVE 24hs

Especial reportaje sobre la FP DUAL en la RTVE, 24 HS



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Mariaren Lagundiako 4.DBHko ikasleak gurean

Alumnado de Mariari Lgundia Ikastola en nuestro centro



Dominikar Errepublikako ordezkaritza Euskadiko Lanbide Heziketa ezagutzen

Representación de la República Dominicana conociendo la FP de Euskadi



Fabrikazio Gehigarrira bideratutako Erasmus+ mugikortasuna Suedian

Movilidad Erasmus+ por Suecia con la Fabricación Aditiva como eje principal



Esperientzia aberasgarria Madrileko Spainskillsetan bizitakoa

Una experiencia enriquecedora vivida en los Spainskills de Madrid




Adimen Artifiziala eta Big Dataren gaineko espezializazio berria eskainiko dugu

Inteligencia Artificial y Big Data, nueva especialización que ofreceremos en el Miguel Altuna



Finlandian izan gara ADMIC nazioarteko proiektuko lan-taldean.

El grupo de trabajo del proyecto internacional ADMIC se ha reunido en Finlandia




Lanbide heziketako emakumezko ikasleen talentua sustatzeko lehiaketan

Participación en el concurso para promocionar el talento femenino en la FP



Emakume eta gizonen arteko berdintasuna Lanbide Heziketan

Igualdad de mujeres y hombres en la Formación Profesional



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldiak aldatuta datoz 2022an

Las jornadas sobre Ciencia, Tecnología e Innovación vienen modificadas en 2022



Prestakuntza-eredu berrietara egokitutako ikaskuntza-espazio berriak: Gaztela eta Leongo ordezkaritzaren bisita

Espacios de aprendizaje adaptados a nuevos modelos de formación. Visita de la repres. de educación de Castilla y León



Gazteen artean ekintzailetasuna sustatzeko jardunaldien 2.edizioa

2º Edición de las Jornadas de promoción del emprendizaje entre la juventud



ZTB Jardunaldiaren baitan STEAM komunitatea indartuz egitasmoa martxan

En marcha la iniciativa STEAM KoIn en el marco de las jornadas de Ciencia, Tecnología e Innovación (ZTB)



DigitalVET nazioarteko lan-taldea Miguel Altunan izan da

El equipo internacional de DigitalVET trabajando en el Miguel Altuna




LCAMP nazioarteko proiektua lantzen Bruselaseko Euskal Gabernuko Delegazioan

Trabajando en el proyecto internacional LCAMP en la Delegación del Gobierno Vasco en Bruselas



Fabrikazio Adimenduna Espezializazio kurtsoko amaierako proiektuen aurkezpen jardunaldia

Jornada de presentación de proyectos fin de Especialización en Fabricación Inteligente



Jardunaldia: Fabrikazio Adimenduna Lanbide Heziketako Espezializazio kurtsoa

Jornada: Curso de Especialización de FP en Fabricación Inteligente



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

4.0 SMART SCHOOL: Ikastetxearen efizientzia energetikoa eta kontsumoen neurketak ardatz

4.0 SMART SCHOOL: Eficiencia energética del centro y las mediciones de consumos



Ikastetxeak eta enpresak eskutik STEAM Komunitatea Indartuz egitasmoan

Centros escolares y empresas de inmersos en la iniciativa STEAM Komunitatea Indartuz



Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteari esker odola emateko aukera

Tuvimos la oportunidad de donar sangre gracias a la asoc. Donantes de Sangre de Gipuzkoa



Miguel Altunako ikasleen UCOOP proiektuak Ekintzailetza Saria jaso du

El proyecto UCOOP del alumnado de Miguel Altuna ha recibido el premio al Emprendimiento



Agenda2030 barruan herriko ikastetxeekin elkarlanean

Colaborando con los centros educativos de la localidad con Agenda2030



Adimen Lehiakorra jorratzen, berrikuntza emaitzak eta joerak landuz

Trabajando en Inteligencia Competitiva: Resultados y tendencias de innovación



Arrasateko Caritaseko taldearen bisita jaso genuen

Recibimos la visita de un grupo de Caritas de Arrasate



Chileko hezkuntza ordezkari eta arduradunak gurean izan ziren

Recibimos la visita de responsables de Educación de Chile



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Administrazio eta Finantzetako ikasleak: Sare sozialak lan bilaketarako

Alumnado de Administración y Finanzas: Redes Sociales para la búsqueda de empleo



Zumarraga-Urretxuko HHI-EPAko ikasleen bisita jaso genuen

Recibimos la visita del alumnado de la EPA de Zumarraga-Urretxu




Erasmus+ ikasleak bueltan atzerriko lan-praktikak amaituta

Alumnado de Erasmus+ de vuelta tras finalizas sus prácticas en el extranjero



Escape Room saioak eskualdeko hainbat ikastetxeetako ikasleekin

Sesiones de Escape Room con los centros educativos de la comarca



Tknikako Estrategia Praktika komunitatearen bilera izan genuen

Reunión de la Comunidad de Prácticas Estratégicas de Tknika



FESTOren formazioa: 4.0 Teknologien transferentzia: ABP erronkak

Formación de FESTO: Transferencia de Tecnología 4.0. Retos ABP




Debagoieneko GOIAZ formazioaren azokan izan ginen. Irudian zozketaren irabazlea.

Participamos en la Feria GOIAZ de Debagoiena. Ganador del sorteo.



2022ko KORRIKAn parte hartu genuen. HitzEkin

Participamos en la KORRIKA 2022. HitzEkin



Albiste izan dira...

SKILLSetan parte hartu zutenei errekonozimendu ekitaldia egin zitzaien

Reconocimiento a todos y todas las participantes de las SKILLS



STEAM Euskadi zigilua lortu dugu

Hemos obtenido el sello STEAM Euskadi

Virtrain Proiektuari lotuta DisCo konferentzian: Errealitate birtuala eta hizkuntzen irakaskuntza

En la Conferencia DisCo con el Proyecto Virtrain: Realidad Virtual y enseñanza de idiomas



Ikasturte amaierako klaustroa

Claustro de fin de curso





Kontinente guztietako hezkuntza adituekin WFCP 2022 kongresuan.

World Federation College and Polytechnics eta TKNIKAk (Euskadiko Lanbide Heziketaren Ikerketa Aplikatuko Zentroa) antolatutako "WFCP2022" jardunaldietan izan ginen.

Expert@s y profesionales de la Educación y de la FP en el WFCP2022

Hemos participado en las jornadas WFCP2022, organizadas por World Federation College and Polytechnics y TKNIKA (Centro de Investigación Aplicada de la Formación Profesional del País Vasco).

Albiste izan dira...





1985etik Miguel Altunako irakasle eta hainbat alorretan lankide fin eta lagun izan dugun "Urra"ri iritsi zaio erretiroa hartzeko garaia.

ESKERRIK ASKO guztiagatik eta denbora libreaz GOZATU!

Amaitu zaigu aurtengo 21/22 ikasturtea eta zer hobeto, elkarrekin irteera bat egin eta egun-pasa polit bat egitea baino. Aurten Elantxobe aldean izan gara...



MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

Hurrengo alea: 2022ko abenduan izango dugu

Kontaiguzu!

Zer iruditu zaizu aldizkari hau? Iritzia eman edo ekarpenen bat egiteko, idatziguzu komunikazioarduraduna@maltuna.eus helbidera.

Eta Miguel Altuna Lanbide Heziketako langilea edo ikaslea bazara, zuk ere parte hartu dezakezu aldizkari honetan!

Nola? Ikastetxeari edo ikasketei loturik, albiste izan daitekeen irteera, lehiaketa, sari, bisita,... egiten baduzu,

komunikazioarduraduna@maltuna.eus helbidera bidaliz (informazio labur bat eta argazki batzuk, posible bada).



KOMUNIKAZIO TALDEA
komunikazioarduraduna@maltuna.eus

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa zure zubia